

KOSTUAK

Gure negozioa aurrera eraman ahal izateko, zein kostu ditugun adierazi beharra dugu.

Izango ditugun kostuen artean, **kostu finkoak** berezi ditzazkegu, hau da, produkzio kantitatearekin zer ikusirik ez dituzten horiek eta beti berdinak izango direnak. Gure enpresaren kasuan hauek izango dira kostu finkoak: egoitzaren alokairua (750€ hilean), langileen soldata (1300€ langileko hilean) (hasiera batean ez dugu langilerik beraz aurrera goazen heinean, aurrez aipatutakoa betetzen joango da) eta egoitzaren mantenimentua.

Kostu aldakorrei dagokionez, ekoiztutako produkzioaren arabera dira. Gure kasuan, hauek izango lirateke: lehengaiak, egoitzaren energia edo argindarra eta egoitzako ura (gutxi gora behera hilean 2000€).

Bertako Eskala ekonomikoari aipamena eginez, hau da, produzitutako unitateen kantitatea handitzen doan bitartean ekoiztutakoaren kostuen murrizketa ematen denean lortzen da. Gure kasuan ez dugu alderdi hau asko zapalduko, izan ere, guk ekoizten duguna ez da unitate askotakoa, ez da erraza asko ekoiztea, bere kostua altua baita. Horrez gain, izango dugun beste kostu aldakor bat (ondatzen diren zakarrontzien kantitateen arabera joango dena), saldu edo alokairuan ditugun zakarrontzi inteligenteen mantenimentua (150€ hilean) izango da.

Horrez gain, zabalkunde edo hedadura ekonomikoari dagokionez, baliabide berdinak erabilia produktu bat baino gehiago egiteko erabiltzen denean gertatzen da. Gure kasuan, hori gertatuko da, izan ere, aliatu garen enpresen eta gure enpresako baliabideak behin eta berriz erabiliko ditugu gure zakarrontzi inteligenteak ekoizteko.

Gure enpresan, ez dugu low-costik egingo, alegia, ez dugu ofertarik edo eskaintza berezirik egingo, prezioak jaisteko. Horren arrazoi nagusienetarikoa bat, gure produkzio kostu eta irabazien arteko tartea da, hots, ez dugu irabazi handiegia lortzen gure prezioak merkeagozko. Gainera, gure helburuetako bat dirua lortzea den horretan, prezioak jaitsi ezker, dirua galtzen hariko ginateke, aurretik aipatutako arrazoiarengatik. Azkenik, pentsatzen dugu, gure prezioak eskaintzen dugunarekiko nahiko lehiakorrek direla beste enprekin konparatuz. Hori dela eta, produktua saltzeko arazorik ez dugula edukiko pentsatzen eta aurreikusten dugu. Ondorioz, beste enpresek gurekin lehiakortasun hori izateko, prezioak jaitsi beharko dituzte. Azken hau, eroslentzat oso abantaiatsua da, izan ere, produktuak geroz eta merkeagoak erosiko dituzte.

Gure kasuan, gure enpresa balioan oinarritutako negozio gisa sailkatu daiteke, izan ere, garrantzi handia ematen diogu gure produktuaren kalitateari. Izan ere, guretzat oso garrantzitsua da kalitate ona duten zakarrontziak ekoiztea, gure bezeroen konfiantza irabazteko. Gainera, uste dugu hasiera batean merkea dena, (honek duen kalitate txarrearengatik prezio baxua duelako) etorkizun batean garestia ateratzen dela. Hortaz, kalitatea bermatzearen aukera lehenetsi dugu. Hau da, ez dugu merkea eta kalitate txarreko produktuak ekoizten dituen enpresa bat izan nahi. Beraz, merkatuan nabarmendu nahi gara gure produktuen kalitate onarengatik.

KOSTU FINKOAK

	PREZIOA	KOPURUA	TOTALA
<u>egoitzaren alokairua</u>	750€ hilean	1	750€
<u>langileen soldata</u>	1300€ langileko hilean	5	6500€
<u>mantenimendua</u>	150€ hilean	1	150€

GUZTIRA	7400€/ hilean
---------	---------------

KOSTU ALDAKORRAK

	PREZIOA	TOTALA
Lehengaiak, egoitzaren energia edo argindarra eta egoitzako ura	hilean 2000€	hilean 2000€

KOSTU TOTALA

GUZTIRA	9400€
---------	-------

Irati Zarranz, Anje Irastorza, Julen Garmendia, Xabier Urigoitia eta Irati Salgado